

**2018. ESKOLA-KIROLA FORU PROGRAMAN PARTE HARTZEA
DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK- ESPARRUA : KIROLA**

UDAL AREA-SAILA-ERAKUNDEA:	Kirol Patronatua
INSTRUKTOREA:	Itxaro Zabala (Kirol Patronatuko zuzendaria)
BALORAZIO BATZORDEA	Irune Ormaetxea (Amaia Elorza ordezkoa), Aritz Abaroa (Pedro Bilbao ordezkoa) Xabi Ortuzar (Sergio Ugalde ordezkoa) Itxaro Zabala
DIRU-LAGUNTZA ARLOA:	Eskola-kirola foru programan parte hartzen duten ume zein gazte bermeotarrei, jarduera fisikoa eta kirolaren praktika osasuntsua bermatzeko diru-laguntza programa.
KODEA:	2018/04-03
AURREKONTUAN ZEHAZTUTAKO DIRU-KOPURUA:	6.000 €. PARTIDA 00000-34120-4890103
HELBURUA:	<ul style="list-style-type: none"> • Ohiko kirola sustatu herritarren osasuna areagotzeko eta gizarte-harremanak eta bizi-kalitatea hobetzeko. • Kirola era seguruan egitea, dagokion azterketa medikua eginez. • Aisialdia betetzeko aukera erakargarria bihurtzea kirola. • Jasotzaileek jabetzea Bermeo ordezkaten dutela parte hartzen duten eskola-lehiaketetan, eta euren portaera Bermeoko irudiarekin lotuta dagoela. • Kirol ohitura osasuntsuak adin txikietatik tinkatzen erraztea.
ESKATZAILEAK:	ESPEZIFIKAZIOAK: Eskola-Kirola foru egitarauko parte hartzaile bermeotarrak.
PROGRAMA:	ESPEZIFIKAZIOAK: Foru Aldundiko agiria ziurtatuz Eskola Kirola foru egitarauan parte hartzen duela.
DIRUZ LAGUNGARRIA DAN KONTZEPTUA:	Diru-laguntza emateko prozedura: Konkurrentzia ez lehiakorra. Diru-laguntza tipoa: Gauzaz ordaintzea. Ordainketak egiteko, eskaria egiten den data izango da kontuan aurreikusitako diru-kopurua amaitu arte. Laguntzen diren gastu motak: sudaderak (Bermeo Kirolak), azterketa medikua (1) eta kirol material berezia (adin txikikoei egokituta). Beharrezko gutxienezko puntuaketa: 0

